# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 225. zkia. 2014ko uztaila



## Santixauei haginka egiteko prest

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN




## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA





Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Inplantologia Masterreko Irakaslea.
**Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
**Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

## ETENGABEKO ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkartea**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguzu!

asociación de comerciantes de eibar
eibarko dendarien elkartea



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguzu!











IRAZABAL
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. GALDETU

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR** - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

***ARGITARATZAILEA:***

**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**

***HELBIDEA:***

**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta–kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.org**

***ERREDAKZIO TALDEA:***

**Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González eta Dorleta Vidal.**

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***

**Dorleta Vidal.**

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***

**Alazne Aiestaran.**

***AZALA:***

**Dorleta Vidal.**

***LAGUNTZAILEAK:***

**Edurne Bilbao, Naike Ereñozaga, Antonio Hernández 'Cuco', Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza eta Valentin Mugarza.**

***ARGAZKIAK:***

**Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Naike Ereñozaga, Ángel Gil, Bea González, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, IMH, Ainhoa Lasuen, Valentin Mugarza, Pedro Ramírez, Stai Zitto eta Dorleta Vidal.**

***PUBLIZITATEA:***

**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**

***INPRIMATEGIA:***

**Gertu Koop. (Oñati).**

***BANAKETA:***

**Ainitze Antxia, Nora Mateos eta Olatz Vidal.**

***TIRADA:***

**2.425 ale.**

***ISSN:***

**1133–973X.**

***LEGE GORDAILUA:***

**SS–213/94.**

***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko hegaztiak

*…Fede Iturriagagoitiak batuta*




"Egun batian oldoztu jakun / danok ehiztara juatia / handikan zerbait ekartzen bazan / gero meriendatzia. / Hartu genduzan birigarrua / zozua eta belia / durdula, mingor, eskillasua / okilla, txantxangorria."

# Hilabete honetan…

MUNDUKO AHOTSAK….4
Jhorling Flores (Nikaragua)

ELKARRIZKETA ..............5-7
Bea González, ilustratzailea

MALLABIAN ZER? ........8-9
Aitor Elordi, pelotaria

ERMUAN ZER? ............10
Stai Zitto musika taldea

SANTIXAUAK ..........11-14

MOTZEAN ..................15
Denis Fernández saritua

ERREPORTAJEA ........16-17
Angel Gilen eskulturak

BOTEPRONTOAN ........18
Leire Rodríguez

SALEROSKETAK ............19
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA .........21
Nola definituko zenuke Ermua

AGENDA ....................22
Udako zinea eta Mallabiko Andra Mari jaiak

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

# Jhorling Flores






**Somoto Madriz herrikoa da Jhorling, Nikaraguakoa. Duela 7 urte etorri zen Euskal Herrira, eta urtebete bizi izan zen Donostian Ermura etorri aurretik. 29 urte eta fisioterapia ikasketak ditu, baina sukaldaritzan dihardu.**

***- Nolakoa zen zure bizitza Somoton?***

Normala. Unibertsitatea, lagunak... Ikasketak bukatu nituenean, ez nuen orduko gobernuarentzat lan egin nahi. Gainera, lizentziatu berriarentzat zaila da lanean hastea entxuferik ez baduzu. Ama Donostian nuen, eta hona etortzeko gonbitea egin zidan.

***- Aldaketa erraza izan zen?***

Bai. Hasieran iruditzen zitzaidan jendea haserre zegoela hitz egitean; gero, mentalitatea aldatu, eta segituan ohitu nintzen. Beste herrialde batera joaten zarenean, bertako ohituretara egokitu behar duzu, jendearengana zabaldu... Ni oso integratuta nago, nire aldetik ere asko ipini dudalako. Esaterako, Emakumearen Topalekuko *Andrabanda* feministako kidea naiz, eta harro nago.

***- Zer dela-eta utzi zenuen Donostia?***

Bikotekidea ezagutu nuelako. Boliviakoa da, eta 11 hilabeteko umetxoa dugu, Ekaitz.

***- Donostiatik Ermura ere, aldaketa egongo zen...***

Bai, oso leku ezberdinak dira. Ermua oso herri parrandazalea da: astebururo dago jairen bat. Donostian ez, eta diru-zorroa beteta izan ezean...

***- Zerk harritu zintuen hemen?***

Hemen denborak ihes egiten duela; Nikaraguan, aldiz, orduak astiro igarotzen dira, modu gogaikarrian. Bestalde, amatasuna horrenbeste atzeratzea ere deigarria da, baina leku bakoitzak bere berezitasunak ditu.

***- Fisioterapian egiten duzu lan?***

Ez, Eibarko jatetxe bateko sukaldean egiten dut lana, eta oso gustura nago. Amamak ikasketak ordaindu zizkidalako ikasi nuen fisioterapia, baina ez dut gustuko. Gainera, ezin dut titulua homologatu.

***- Hemengo janaria oso ezberdina da?***

Bai, zeharo. Nikaraguan *tamal pisque*ak ditugu, *nacatamale*ak, tortillak... Hango gauzak prestatzen ditut batzuetan etxean, baina egia esan, ez dut hangoa faltan botatzen.

***- Zer irabazi duzu hemen?***

Euskaldun bat gehiago izatea.

***- Eta galdu?***

Ezer ez. Irabazi egin dut.

***- Zer botatzen duzu faltan?***

Aitona-amonak besarkatzea. Nire anai-arrebekin Internet bidez hitz egiten dut sarritan, eta lagunekin ere. Hala ere, denborarekin harremana aldatzen da.

***- Nikaraguara joaten zara?***

Ez, ez naiz sekula bueltatu. Laster joateko esperantza dut.

***- Hemen geratzeko asmoa duzu?***

Bai, botatzen ez banaute, behintzat!

***- Nola moldatzen zara euskararekin?***

Ulertu bai, baina ez dut hitz egiten. Hiru urte eman nituen HHIn (EPAn), eta gainera nire nagusiak Debakoak dira. Ez daukat beste erremediorik!

Dorleta Vidal












**Bea González, ilustratzailea:**

# “Beste herrialde batzuetan, ogibide serioa da ilustrazioa”

Ilustrazio koloretsuez eta fantasiazko ipuinez osatutako liburua da *Reflections*, eta Bea González ermuarra da horren egilea. Bartzelonako XXXII. Nazioarteko Komiki Erakusketan aurkeztu zuen, maiatzaren 15ean, nobedadeen atalean. Norma argitaletxe entzutetsuak 1.500 ale kaleratu ditu eta editoreak pozik daude ilustrazio-bilduma honen salmentarekin. Hortaz, poz-pozik dago egilea ere. Arte Ederretan lizentziatua da Bea, eta 4 urte daramatza Madrilen, afizioa ogibide bihurtuta. Emakumeak marraztea atsegin du batez ere, eta bere kreazioek oso ukitu pertsonala dute, katedraletako beirateak gogora ekartzen baitituzte.

***- Maiatzaren 15ean kaleratu zenuen Reflections, zure lehen liburua...***

Bai. Bartzelonako Nazioarteko Komiki Erakusketan aurkeztu nuen, maiatzaren 15etik 17ra, nobedadeen atalean. Bertan izan nuen lehen sinadura-saioa. Harrera ona izan zuen liburuak, jende asko hurbildu zitzaidan, eta oso pozik geratu nintzen. Jendeari asko gustatu zitzaion.

***- Komiki Erakusketara joaten zinen lehen aldia izan zen?***

Ez, urte askotan joan naiz, afizionatu gisa. Espainian dagoen erakusketarik handiena da, eta ilustrazioaren esparruan lan egiten duen jende gehiena joaten da. Lankideak ikusteko abagunea da niretzat. Gainera, agenteak egoten dira, eta norberaren lana aurkezteko aukera ezin hobea da.

***- Zuk ere zure proiektua aurkeztu zenien bertako editoreei. Ausarta izan behar da horretarako?***

Lankideek animatu ninduten, nire lana ona zela esan zidaten-eta.

***- Editoreek zure proiektua onartu zutenean, zer sentitu zenuen?***

Sekulako poza! Bultzada izugarria da liburua izatea. Ilustratzaile askok, bizitza guztia lan horretan emanda ere, ez dute lortzen liburua kaleratzea. Eta gainera, aipatu beharra daukat, Norma argitaletxeak kaleratu didala liburua; hau da, estatu mailan dagoen komiki argitaletxerik garrantzitsuena. Luis Royo eta Victoria Francés bezalako ilustratzaileekin egiten dute lan, munduan ezagunak direnak. Luxua da argitaletxe honek nire liburua kaleratzea.

***- Nola definituko zenuke liburua?***

Ipuin ilustratuen bilduma da. Ilustrazio-liburua da, baina bere barnean istorio ugari ditu.

***- Zenbat denbora behar izan duzu berau prestatzeko?***

Liburu honetarako berariaz sortutako ilustrazioak dira guztiak, eta proiektua aurkeztu nuenetik urte pare bat igaro dira. Proiektu hau eta, aldi berean, beste lan batzuk egin behar izan ditut.

***- Aurretik zirriborroa egina zenuen, ezta?***

Bai. Editoreari egiten diozun aurkezpenean, istorioa azaldu eta 4 edo 6 irudi inguru eraman behar dizkiozu. Baietza jasotzerakoan ekiten diozu proiektua benetan lantzeari.

***- Zenbat denbora eman dezakezu ilustrazio batekin?***

Depende. Detaile asko baditu, 80-100 ordu. Gainera, blokeatzen banaiz, marrazkia bi egunez *beratzen* utzi, eta berriro ekiten diot.

***- Emakumeak agertzen dira batez ere Reflectionsen. Zer dela-eta?***

Neskak eta emakumeak marraztea gustatzen zait. Ilustrazioan egiten diren lanen ehuneko handi batean emakumeak agertzen dira. Nire ustez, emakumeei etekin handiagoa atera dakieke. Soinekoarekin jolas dezakezu, orrazkerarekin... Mila gauza egin daitezke.

***- Liburuko marrazkiak eskuz egin dituzu?***

Bai, eskuz marrazten dut beti: paper, arkatz eta borragomarekin. Jarraian, zirriborroa garbitu, eskaneatu eta Photoshoparekin margotzen dut. Ordenagailuz egin arren, margotzea ere eskulana da: trebezia bera behar da koadro bat eskuz margotzeko edo Photoshoparekin egiteko. Sistema bera da. Basea eman, bolumenak atera... Wacon tableta baliatzen dut.

***- Zer esan nahi du zirriborroa garbitzen duzula?***



## “Detaile asko baditu, 100 ordu eman ditzaket ilustrazio bat egiten”




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

**Usaetxe plaza 6-8, behea**
**Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)**
**Telf: 943 23 10 12**

Marrazten dudanean, hainbat zirriborro egiten ditut arin-arin. Zikinak egoten dira, hau da, marraz beterik. Orduan kopia bat egiten dut, gainetik marraztu berriro ere, marra eta silueta zehatzagoak egin... Hiru kopia egin ohi ditut garbi-garbia utzi arte.

***- Irudietan sekulako pisua du koloreak, ezta?***

Bai, nire lanak kolore biziak izan ditu beti. Asko gustatzen zaizkit kontrasteak. Gainera, liburuaren istorio nagusia oso tristea denez, oso grisa, kontrastea ipini nahi nion kolorearekin.

***- Zure marrazkiek Mangarekin zerikusia dute?***

Betidanik gustatu izan zaizkit manga eta anime marrazkiak, eta hasieran horretan ibili nintzen. Denborarekin, nire estiloa definitzen joan nintzen, beste egile batzuk ezagutzen... Gaur egun ez dago manga arrastorik nire ilustrazioetan.

***- Liburuak narrazioa ere badu. Nola moldatu zara testuak idazteko?***

Oso gaizki, ez zait gustatzen idaztea: lagun batek idatzi zizkidan. Idazlea da, eta proiektua aurkeztu eta zer nahi nuen azaldu nion.

***- Zergatik Reflections izenburua?***

Nire ilustrazioek oso ukitu pertsonala dute: elizetan egoten diren beirateen arrastoak dituzte. Kristalei erreferentzia egin nahi nien, eta horiek erreflexuak egiten dituztenez...

***- Nork irakur dezake zure liburua?***

Adin guztietarako da: Umeentzako, ipuin poetikoak dituelako, eta nagusientzako. Ilustrazioen bildumazaleak helduak dira askotan.

***- Non eros daiteke?***



# “Aukeran, bideojokoetako pertsonaien diseinuan lan egitea gustatuko litzaidake”

Liburu-denda espezializatuetan, FNAC, El Corte Inglés batzuetan... Udal Liburutegian ere badago.

***- Zein da zure ogibidea gaur egun?***

Ilustrazioan dihardut Madrilen, era profesionalean. Arte Ederretan lizentziatu eta honetan hasi nintzen, 10 urte inguru daramatzat.

***- Ilustrazioan, maila altua dago estatuan?***

Ez nuke mailaz hitz egingo, kulturaz eta balorazioaz baizik. AEBtan daude animazio enpresa guztiak, komiki-zaletasun ikaragarria eta aurrekontuak itzelak dira! Europan, Frantzian, esaterako, ilustrazioa lanbide serioa da. Komikiaren kultura bultzatu beharko litzateke gurean. Gauzak hobetzen doaz, baina frikien edo umeen kontua izan da orain dela gutxira arte.

***- Mota honetako lanak merkaturatzea erreza da?***

Beno, badaramatzat urte batzuk, eta beste modu batera ikusten ditut gauzak. Hasieran nahiko zaila da: indarra ipini eta tematu behar duzu. Jende askok ez du sinisten honetaz bizi naizenik. Pentsatzen dute afizioz egiten dudala, ez didatela ordaintzen-edo!

***- Zure familiak ulertzen du?***

Bai, nire ondoan egon dira beti. Amak eta izebak harro egiten didate publizitatea Ermuan!

***- Eta zuk, egiten duzunarekin disfrutatzen duzu?***

Jakina. Batzuetan astuna egin daiteke, ez baita gauza bera afizioz marraztea edo lanagatik egitea. Baina ez naiz kexatzen.

***- Nola ikusten duzu zure burua hemendik 10 urtera?***

Lan berdinarekin jarraitu nahiko nuke. Autonomoaren lanak gorabehera asko ditu: hilabete batean ez duzu enkargurik eta hurrengoan lanez lepo zaude! Gustura nago eta, aukeran, bideojokoetako grafikoetan lan egitea gustatuko litzaidake, pertsonaien diseinuan, esaterako.

***- Zure kontura egiten duzu lan?***

Bai, nire mutil-laguna ere ilustratzailea da eta estudioa dugu etxean. Berak fotomanipulazioa egiten du, hau da, argazkiekin egiten du lan. Hala ere, aholkuak ematen dizkiogu elkarri, batzuetan nekagarria suerta daitekeen arren...

***- Bestelako lanak egiten dituzu?***

Bai, kartelak, diskoen portadak eta abar egiten ditut. Bestalde, Interneten denda bat daukat (www.13thpsyche.com), eta eskuz egindako zintzilikarioak saltzen ditut bertan. Ilustrazioarekin lotzen dut hori ere, baina nire zeregin nagusia ilustrazioa da.

Dorleta Vidal

LURPE LURPU
ERMUA ERMUA



·Teak, kafeak eta eztia.
·Belgiako txokolatea.
·Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
·Teontziak, katiluak...
Oparitzeko neurrira egindako otzarak!
Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

san pelayo
clínica dental hortz klinika
San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)
Olatz Garcia Arregui
943 17 04 04

### Aitor Elordi, pelotaria:

# “Dana ondo doienien mundu guztixe hurbiltzen jatzu”



***- Pelota mundutik ezagutzen zaittugu Mallabixen, noiz hasi ziñen kirol honetan?***

Txikitten hasi nintzen, gitxi gorabehera 3 urte neukezela. Gogoratzen naz eskolak amaitzerakuen aittitte Paulo etortzen jatala merixendie ekartzera. Merixendiakin batera pelotie ekartzen eusten ta bokadillue jan ostien berakin jolasten ikasi neban, lehenengo pilotakadak joten; egunerokue bihurtu zan. Pelotie hainbeste gustau jatan, Mallabiko Pilota Eskolan apuntatzie erabaki neban.

***- Nundik datortzu afiziñue?***

Pelotarako afiziño hori aman partetik datorrela pentsatzen dot. Pelotarako eta beste kiroletarako zaletasun handixe euken aittitte Paulok, baitte bere familixiek be. Aittittek eta bere anaixak pelotarako zaletasun handixe euki eben euren denporan, baitte praka zurixek jantzitte partiduek jokatu be. Aittittan anaixa Jabier, Lekeitixon urte askotan pelota eskolako arduradun izen zan.

***- Zenbat denpora betetzen dau pelotiek zure bizitzan?***

Gaur egun Iurretako Olaburu pilota eskolan nabil eta aste barruen egin biherreko entrenamentuek programaute eukitten doguz. Normalien ixe, okerrik ezpada astelehena, martitzena da eguaztena entrenatzen dogu, batzuten fisikue da beste batzuten frontoien teknikue. Eguenetan jai eukitten dogu eta barixekuen edo asteburuen partidue. Uda bueltan eskolaik ez daukogunez gauzie aldatu egitten da, gehixenetan goizetan entrenatzen dogu eta partiduek gehixa aste barruen eukitten doguz. Entrenamentu bakotxa 2 orduku bueltakue izeten da.

***- Zelan batzen dozuz ikasketak eta pelotie?***

Ikasketak eta pelotie ondo batzen dittut, esamiña denporetan etortzen die kontuek! Izen be, dana azkeneko egunerako lagatzen dot da gero dana pillatzen jata. Gaztiago nitzenien futbolien eta koruen be urte batzuk egin nittun. Horrez gain illuntzetan aitai laguntzie gustatzen jatan Berritxuko animalixak gobernatzen baina ikasketak gogortzen juen ahala pelotiaz bakarrik geratu nintzen, danera ezin nintzelako heldu.

***- Zer ikasi dozu pelotian bidez?***

Egun baten goixen zauezela eta hurrengo egunien beheien. Dana ondo doienien mundu guztixe hurbiltzen jatzu baina gauzak hain ondo ez doiezenien konturetzen zara benetan zeintzuk dauezen zure albuen. Hori da pelotiek erakutsi deusten gauzaik garrantzitsuena, benetan albuen dittudanak baloratzen.

***- Biharko Izarrak txapelketan ikusi zaittugu aurten… zer aipatuko zeunke?***

Bai, aurten izen da parte hartu doten lehenengo urtie eta oso esperientzixa ona izen da. Afizionau mailan pelotaririk onenak etortzen die eta oso mailla altue egoten da. Beste pilotarixekiko igerri doten gauzaik haundixena belozidadie izen da, izen be ni baino 4 urte zaharra dienen aurka jokatu dot eta horrek beste txispa bat deukie.

***- Zer iritzi daukezu txapelketa honen inguruen?***

Txapelketa honen inguruen iritzi ona deuket. Beste txapelketetatik diferentie da. Hasiera baten jentie ez euen oso konbenzidute baiña ur-

## “Aurtengo Biharko Izarrak txapelketan oso esperientzixa ona izan dut”

**Izen abizenak: Aitor Elordi Txakartegi**
**Adina: 18 urte (1996-03-23)**
**Ikasketak: Batxilergoa.**

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA




OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA
Marfil
Ile-apaindegi bat baino gehiago!!
Egokitutako burua garbitzeko konketa
943 17 28 09 · Goienkale 12

# “Etorkizunien... batek daki. Egunerokuakin jarraitzie da inportantiena nitako”




tiek aurrera juen dien moduen ikusi da metodo on bat dala, holan ikusten da ta ze pelotarik destakatzen daben.

***- Gustauko jatzun datorren urtien be parte hartzie?***

Pelotan entrenatzen jarraittuko dogu ia zozer mejorau al nazen eta, okerrik ezbada bai, gustauko jatan, azkenien danoi gustatzen jaku holako txapelketetan parte hartzie eta mailla ona emotie. Mailla ona emotie gatxaua izeten da parte hartzie baino… jajaja

***- Zelakue da Mallabiko publikue?***

Mallabiko publikue ona da, txapelketiek euki leiken pega txiki bat da eguenetan jokatzen dala eta aste barruen izeneran ez da horrenbeste jente etortzen, baina nik jokatu dotenetan animuek igarri dittut. Eskerrak emon nahi deutsiet danei, baina batez ere Titoi, nik jokatzen naban bakotxien nire abizena atzien eukela animatzera etortzen zalako, eta hori oso detalle politxe da.

***- Zelako pelota zaletasune dau Mallabin?***

Lehen, pelotan mundu guztixek eitten eban, herriko ume geixenak ibiltzen zien pelotan eta gaur egunien ez da holan... tristie da. Futbolak indder haundixe dauke eta ume geixenak futbolien ibiltten die pelotie alde batera lagata. Azken urtietan, Interpueblosen adibidez, pelotari kopuerue bajatzen jun dala igertzen da.

***- Pelotiaz gain, zeintzuk die zure afizinuek?***

Ni danetik gustatzen jatan mutil bat naz, kirol gehixenak gustatzen jataz. Baiña afiziño haundixena animalixak diela esango neuke; baserri mundue beti gustau izen jata da horri be ordu batzuk eskeintzen deutsadaz, libre dauketenien beti ibiltten naz animalixa artien edo eurekin relazionauteko zozer egitten.

***- Etorkizunien, zelan edo nun ikusten dozu zure burue?***

Etorkizunien nun eongo nazen jakittie… batek daki. Nik eztot ikusten iñungo lekuen nire burue, gauzak aldatu egitten die… horregaittik egunerokuakin jarraitzie da inportantiena nitzako. Etorkizunien osasune, biherra euki eta maitte nauen neska batekin elkartu ezkero, ni pozik! Eztot gehixa eskatzen.

Igone Amesti eta
Ibaia Azagirre









### Stai Zitto musika taldea:

# “2015eko udan Euskal Herri osoan jo nahiko genuke”

**Iazko irailean ekin zion lanari zazpikote honek. Beste talde batzuetan ibilitakoak dira kide gehienak eta musika kontuetan esperientzia dute, 17 eta 23 urte artekoak izan arren. Txosnetako musika egiten dute: rocka batez ere, ska eta reggae ukituekin, eta lehen diskoa kaleratu berri dute.**




***- Duela aste pare bat kaleratu duzue diskoa. Aurkezteko aukerarik izan duzue?***

Bai, Eibarko Ez Dok tabernan egin dugu aurkezpena orain dela gutxi. Harreman oso ona dugu tabernakoekin eta haiek eskatu ziguten. Leku berezia da guretzat.

***- Zenbat abestik osatzen dute diskoa?***

Zazpik. Bat instrumentala da, bi gaztelaniaz dira eta gainontzekoak euskaraz. Sei hilabete inguru behar izan ditugu dena prestatzeko; bitartean, zuzenekoak egiten joan gara.

***- Zuek grabatu duzue?***

Ez, Usurbilen grabatu dugu, Higain Estudiosen. Gauzak ondo egin nahi genituen, ez maketa ziztrin bat. Hogeita bat eguneko prozesua izan da, eta, egun horietan, taldekide baten senidearen etxean egin dugu lo, Orion.

***- Zenbat ale kaleratu dituzue?***

1.000 ale, eta salgai daude Lurpen, Txalapartan, Outomuron, Juana Mari dendan, Musikal Araban eta Eibarko Ez Dok tabernan. Facebook, Twitter eta Bandcampa ere badugu, eta bertan eska daiteke.

***- Talde kopurutsua zarete eta hainbat musika-tresna jotzen dituzue, ezta?***

Bai, Julen Rodríguezek, tronpeta; Maialen Arrizabalagak, ahotsa eta saxofoia; Axier Urangak, baxua; Danel Ferreñok, bateria; Xabier Martinek, tronboia; eta Andoni Condek eta Asier Cascánek, gitarrak.



***- Nola ezagutu zenuten elkar?***

Gehienok Alboka Musika Eskolan ikasi dugu, eta bertatik jaiotako taldea dela esan dezakegu.

***- Zeinek sortzen ditu abestiak?***

Maialenek letrak idatzi eta Asierrek erritmoak eta melodiak sortzen ditu. Gero, denon artean komentatu, eta bakoitzak gure ekarpenak egiten ditugu. Galbaheak pasatzen ditugu. Kontzertuetan bertsioak ere jotzen ditugu: Gatibu, Jet, Berri Txarrak, Hertzainak, Betizu...

***- Zeri buruz hitz egiten dute zuen abestiek?***

Poztasuna, maitasuna, askatasuna... Abesti alaiak dira.

***- Zein da zuen helburua musikan?***

Lehenik eta behin, ondo pasatzea. Bestalde, ez dugu ospetsu egin nahi, baina nahiko genuke jendeak jakitea hor gaudela; azkenik, jotzea eta jotzea da gure asmoa.

***- Nola ikusten duzue zuen burua hemendik urte batzuetara?***

Hemendik bi urtera espero dugu gure musika zabaldu izana. Beharbada ez dugu musikatik bizimodua aterako, baina tira, laguntza izan daiteke. Lan itsusia egiten ari gara egun gure burua ezagutzera emateko: mesedeak eskatuta, baldintza txarretan jotzen, dirua galtzen...

***- Zenbat kontzertu eman dituzue orain arte?***

Momentuz... hamar bat. Berandu atera dugu diskoa eta herri guztietan dituzte jada kontzertuak lotuta. Horregatik, udan deskantsatu eta irailean hasiko gara gogor. 2015eko uda da gure erronka, Euskal Herri osoan jo nahiko genuke. Hau da gure kontaktua: 626530267 eta staizittoband@gmail.com.

***- Zer esan nahi du Stai Zitto izenak?***

Maialen Itailan egon zen iazko udan, eta Romako ospitale batean kartela ikusi nuen: Stai Zitto. Hangoei galdetuta, zaude isilik esan nahi zuela esan zioten. Gustatu zitzaigun. Bisualki ezberdina da eta ironikoa ere: musika taldea gara eta gure izenak isilik egoteko agintzen du!

Dorleta Vidal

Iberikoetan espezialistak
Mayte
Denda berria
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

OUTUMURO
Kafetegia
Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu




**UZTAILAREN 24a, OSTEGUNA**

- **17:00** Patxi plazan, JAI-OPARI BANAKETA Drogomenpekotasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan Irulitxa musika-bandak alaituriko TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko KALEJIRA herriko kaleetan barrena.
- **22:00** Valdespina Markesaren parkean, Beti txarto kolektiboak antolatutako MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA ondorengo taldeekin: César Almena (Code Fabrik Madrid), Asier & Araujo, Alexander M, Fey, Javierski eta Sebita.
- **23:00** DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Esmeralda orkestrarekin.













**UZTAILAREN 25a, OSTIRALA**

- **4:00/6:00** Pasarela orkestrak GAUPASA girotuko du.
- **7:00** TXOKOLATE-JANA plazan.
- **7:30** Plazako pilotalekuan BARRUS partidak izango dira.
- **8:00** SOKAMUTURRA Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00/14:00** eta **17:00/20:00** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan MEZA izango da patroiaren omenez.
- **12:30** HERRI-KIROL ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan: HARRIJASOTZAILEAK: Inaxio Perurena, Jon Gisasola eta Haritz Etxebarria. AIZKOLARIAK: Jesus Gisasola, Bihurri II, Hodei Ezpeleta eta Ioritz Gisasola.
- **12:30** KALEJIRA Ustekabe txarangaren eskutik.
- **16:00** San Pelaioko Bolatokian BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2014 SARIA.
- **17:00** Aritzmendi pilotalekuan PROFESIONAL ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK: Jaka-Merino I / Mendizabal III-Larrinaga eta Mtnez. de Irujo-Tolosa / Titín III- Zabaleta.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik.



- **20:00** LARRAINDANTZA izango da Orbe Kardinalaren plazan, nahi duen guztiak parte hartzeko.
- **20:30** Orbe Kardinalaren plazan EUSKARAREN ALDEKO TOPAKONPROMISOA.
- **22:00** Valdespinako Markesaren parkean, ROCK eta MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA: Red Blaze, Javierski, Damudot, Alexander M eta Sei Urte.
- **22:30** Circulation Locale Belgiako taldeak *Trampoline Mision 3* KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaioko plazan.
- **23:00** Orbe Kardinalaren plazan Golden orkestrak DANTZALDIA girotuko du.












**UZTAILAREN 26a, LARUNBATA**

- **7:00** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7:30** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8:00** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00/14:00** eta **17:00/20:00** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12:00** NAGUSIEI OMENALDIA egingo zaie eta SARIAK ENTREGATUKO ZAIZKIE Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **13:00** Alboka Musika Eskolako Bandak KONTZERTUA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14:00** Aritzmendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- **18:00** ESKUPILOTA partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan:
Azpiri (Elorrio) – Bengoetxea (Eibar) / Elezkano (Galdakao)- Aldape (Mallabia.)
Bestalde, Arrieta (Hernani)- Gorrotxategi (Hernani) / Santxo (Usurbil) Irusta (Munitibar).
- **19:00** Patxin eta Potxinek PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **19:00** KALEJIRA Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19:00** KALEJIRA Ermuko txarangen eskutik.
- **20:00** LARRAINDANTZA Orbe Kardinalaren plazan.
- **22:000** Valdespinako Markesaren parkean, ROCK JAIALDIA: Multa, Proyecto Simio, Censurados, Monkday eta Insohmnio.
- **22:30** Aragoneko Capicua taldeak *Entredós* KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio kaletik hasita.
- **23:00** Pasarela Orkestrak, DANTZALDIA alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.



Torrekua

KARIKATO
TR. KANTABRIA Nº1 BAJO
48.260 ERMUA
(BIZKAIA)

SORGIN

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea
Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43
48260 ERMUA
(Bizkaia)






**UZTAILAREN 27a, IGANDEA**

- **7:00** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7:30** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8:00** SOKAMUTURRA Ongarai Eskolako patioan.
- **10:00/11:30** Arroz banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, PAELLA LEHIAKETAri ekingo zaio haur eta helduen kategorietan.
- **11:00** Valdespinako parkean SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat.
- **12:00/14:00** ETA **17:00/20:00** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12:30** KALEJIRA Wesyké txarangaren eskutik.
- **14:00** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO DIRA eta ondoren ohiko HERRI BAZKARIA.
- **18:00** ERROMERIA Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.



-**19:00** KALEJIRA Wesyké txarangaren eskutik.
- **19:00** Paella lehiketaren epaimahikoek IRABAZLEAK ezagutaraziko dituzte eta SARI-BANAKETA egingo da plazan.
- **19:15** Orbe Kardinalaren plazan, AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA nahi duen guztientzat.
- **20:00** ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.
- **22:00** KONTZERTUA Vendetta taldearen eskutik.
- **23:30** Irulitxa musika-bandaren ONGIETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.
- **00:00** SUZIRIAK Ongaraiko parkean. Ondoren KALEJIRA plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien AGUR JAUNAK.
- **00:30** JAIEN AMAIERA. El Consorcio taldeak kontzertua eskainiko du plazan.

*Argazkiak: Asier Ibaibarriaga, Ainhoa Lasuen, Pedro Ramírez eta Dorleta Vidal.*












# 134 umek parte hartu dute udalekuetan



Sei eta hamaika urte bitarteko 134 umek parte hartu dute Antxitxiketan aisialdi taldeak eta Ermuko Udaleko Euskara Sailak antolatu dituzten udalekuetan (ekainaren 23tik uztailaren 11ra). Bestalde, Gazte Ibiltariak ekimenean 10 gaztek eman dute izena eta ludotekan 2 eta 5 urte bitarteko 58 mutiko eta neskato egon dira. Aipatzekoa da udalekuetako talde guztiak Lesakan egon direla, Matxinbeltzenea aterpetxean, eta Oriora joan zirenean, ume saharauiekin egon zirela. “Iazko aurrekontu berdinarekin, udalekuak astebete luzatzea lortu dugu. Aurtengoek 3 aste iraun dute”, diote pozik arduradunek.

# Zazpi ermuar aritu dira Gasteizko *Ironman*ean



Uztailaren 13an ospatu ziren Gasteizko *Ironman* eta *Ironman* erdiko triatloiak, eta bertan zazpi ermuarrek parte hartu zuten. Dabid Kamara, Ekaitz Arronategi, Javi Marcos “Casta” eta Sergio Muñoz distantzia luzean aritu ziren (3,8km igeriketan, 180km bizikletan eta 42km korriketan); Roberto Tesourok, Javi Muñozek eta Fede Cuencak, berriz, distantzia erdiari ekin zioten (1,9km igeriketan, 94km bizikletan eta 21km korriketan). Ostots Triatloi Kirol Klubekoek diotenez, “froga biak goizean goiz hasi ziren Landako urtegian, laino artean. Egunak aurrera egin ahala, eguzkiak gogorrago ekin zion eta beroak korrikako atala gogortu zuen batez ere. Dena den, Ermuko ordezkariek oso maila altua erakutsi zuten Gasteizeko kaleetan, giro ezin hobean”. Horrez gain, jakinarazi dute azken orduko baja egon zela: “Javi Rodríguezek urte osoan gogor entrenatu arren, frogaren aurreko astean bizikletan entrenatzen zebilela, jausi eta besoa hautsi zuen. Pena handiz *Ironman*ari agur esan behar izan zion”.

# Denis Fernández ermuarrak IMHko saria jaso du



IMH Sarien 12. edizioaren banaketa ekitaldia egin zuen Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak ekainaren 19an. Denis Fernández izendatu dute aurtengo ikasle aipagarria, 10etik 9ko batez besteko espedientea izateagatik. Erdi Mailako Mekanizazioa ikasi du Fernándezek eta praktikak egin dituen enpresan jarraitzen du lanean (Eibarko Mecánicas Mecalen). 500 euroko ikasketa-poltsa izan da saria. Ekitaldi berean, diploma jaso zuten heziketa zikloetako 82 ikaslek.

## 115 LAGUNEK PARTE HARTU DUTE BERBALAGUNEN

Aurtengo Berbalagun egitasmoan 115 ermuarrek parte hartu dute, iaz baino 25 bat gehiagok. Juanmi Bravo arduradunak dioenez, “nabarmentzekoa da iaz guraso talde bakarra egon zela eta aurten 3 egin direla. Hau da: herriko eskola publiko bakoitzak guraso talde bana izan du”. Izan ere, hau da praktika egitasmo horren erronketako bat, guraso eta umeen arteko transmisioan eragitea. Bestalde, Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkarteko kideek ere, taldetxoa osatu dute. Berrikuntzen artean, Mintzodromoa aipatu behar da, “arrakasta handiz burutu dena —dio Bravok—. Gainera, asteburu-pasa egin dugu Baztanen, Zugarramurdiko aterpetxean, 3 urte inora joan barik egon eta gero”. *Ermua ezagutuz* ekimena ere berreskuratu da edizio honetan, eta 30 lagunek parte hartu dute. Datorren ikasturteari begira, euskaldun zaharren parte-hartzea indartu nahi dute antolatzaileek. Horrez gain, herriko elkarte eta talde ezberdinekin abiatu duten elkarlanari eutsi nahiko liokete (Artarrai, EMOE, Gazte Asanblada...).













# Angel Gilen lanak, bidaia-lagun

**Uda honetarako ibilbide berezi bat egitea da gure proposamena: Angel Gil eskultore ermuarraren lan esanguratsuenen arrastoari jarraitzea, Ermuko elexostean hasiz eta Madrilgo Getafen amaituz. Dena prest?**



***D. Teodoro*. Ermua (Bizkaia).**

Herriko parrokoari eskainitako eskultura, berau neskato bati gozokiak ematen dago, umeekin egiten ohi zuen bezala; sarri-sarri benetako gozokiak izaten ditu. Egilearentzat bere lanik hunkigarriena da, lorez apainduta beti eta nolabait "bizirik" sentitzen duena, zendua izan arren ere, abadeak herriko umeak karameloz hornitzen jarraitzen dituelako.



***Tío Ríos*. Santoña (Santander).**

XX. mende hasieran herriko lorategiak musu-truk zaintzen zituen gizon horri eskerrona erakuste aldera udaletxe ondoko parkean bere oroitzapenezko brontzezko eskultura jarri zen, mangera batez loreak ureztatzen irudikatua.

***Botero* eta *Hortelana*. Haro (La Rioja).**

Nazioarteko eskultoreekin lehiatuz, irabazle suertatu zen ia desagertutako ofizio tradizional bi horiek irudikatzeko bere proposamena. Zahato-egilea horretara dedikatu zen azken gizona lan egindako leku berean dago, La Cruz enparantzan; baserritarra, merkatu ondoan.



Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



*A nuestros mayores*. **Burgos**

Katedralera bidean, begirada samurreko bi aitxitxa-amama: kokotsa makil gainean pausatuta gizonak eta kakorratzlanean andrea, pasuan doan orori antiojotxoen gainetik begiratuz. Erreparatu beharrekoa orratza eusteko moduan eskuek duten naturaltasuna.

***Príncipe de Asturias*. Briviesca (Burgos).**

Florida parkean Felipe de Borbonen bustoa eta haren azpiko muralak, gogora ekartzeko 1488an Briviescako Gorteeko izendatutako Asturiasko I. Printzea.

***El Anciano* eta *El Cid*. Mecerreyes (Burgos).**

Frutos Mesoiaren atean eserita dagoen irudiak herrietako ohiko aitxitxa gogora dakarkigun bezala, 13.000 kiloren bueltan pisatzen duen porlanezko Cid erraldoiak pertsonaia historikoa gomutatzen du, juxtu "Ruta del Cid" deritzon bidearen ondoan.

***Vendimiador* eta nekazariak omentzeko murala. Pedrosa de Duero (Burgos).**

Mahatsa batzen ari den gizonaren brontzezko eskultura figuratiboak, zeramika margotuaz osatutako murala du herrian lagun, nekazaritzari lotutako beharren goraipamen.

***Baloncesto, Tenista, Butanero, Pareja abrazada*. Getafe (Madrid).**

Kirola zein ofizio eta eguneroko ohiturak goraipatzeko asmoz, gaur hiria edertzen duten brontzezko hainbat eskultura enkargatzea otu zitzaion udal madrildarrari. Kiroldegian daude kirolari biak eta hiriko leku desberdinetan gainontzeko besteak.



*Mural Mirador del Castillo*. **Burgos**

24 m.ko luzera du deitu izan duten "Burgos hiriburuko gida-turistikorik osatuena". Brontzean eta erliebean moldatua, bertako monumentu esanguratsuenak ditu errepresentatuta, izena, eraikuntza-sasoia eta abarrekin. Egilearen esanetan, letra hauen modelatua izan zen lanik zailena guztia egiten emandako bi urte luzeetan.

Estibalitz González



Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DANAONA
IZOZTUAK ETA AURREKOZINATUAK
GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112
MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
✆ 943 17 47 44

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO
ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

# LEIRE RODRIGUEZ



21 urte ditu Leire Rodríguez Ugartek. Ana eta Jesusen alaba da, Aitor baino urtebete zaharragoa. Duela hiru urte turismo ikasteari ekin zion Deustuko Unibertsitatean.

***- Gaztetan atletismoan aritzen zinen… Zer dela eta utzi zenuen?***

Denboragatik gehien bat. Karrerak zapatu eta domeketan ziren, eta 16 urterekin lagunekin kalera irtetea nahiago nuen.

***- Zelan daramatzazu turismo ikasketak?***

Oso ondo. Azkeneko momentura arte ez nuen erabaki. Turismo eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren artean nenbilen, eta aukeraketa ona egin dudala uste dut.

***- Danimarkan izan zara aurten…***

Esperientzia ezin hobea izan da. Bost hilabete eman ditut bertan, eta horregatik ez zait horren gogorra egin.

***- Bertako janaria…***

Ona, baina hemen hobeto jaten da. Gainera lehenengo aldiz bakarrik bizi izan naiz, eta janaria prestatzen ikasi behar izan dut.

***- Euskal Herrian baino gehiago ligatzen da bertan?***

Ba ez dakit… baina bertako mutilak oso zuzenak dira. Ligatzera irteten dira, eta ez lagunekin egotera! (barre artean)

***- Etorkizunean…***

Ekitaldiak kudeatzen edo hoteletan lan egitea gustatuko litzaidake.

***- Ondo moldatzen zara hizkuntzekin?***

Saiatzen naiz. Ingelesa nahiko ondo dakit, alemana ikasten hasi nintzen karreran, frantsesa pixka bat badakit…

***- Noiz hasi zinen estreinakoz lan munduan?***

18 urterekin monitore titulua atera, udaran herriko udalekuetan praktikak egin, eta neguan hasi nintzen lanean.

***- Zelan umeekin lanean?***

Beldurra ematen zidan hasieran, baina gero eta hobeto moldatzen naiz. Aurten 2- 5 urteko umeekin nabil, eta oso ondo portatzen dira.

***- Zer egiten duzu burua lasaitzeko?***

Deskantsatu, mutilarekin egon, lagunekin kafea hartu…

***- Biziorik?***

Txokolateaaaa!!!

***- Gogoko duzun janaririk?***

Dena, barazkiak izan ezik.

***- Zerekin amesten duzu?***

Bidaiatzearekin. Mundu osoan zehar bidaiatuko nuke!

***- Zein tokitan izan zara?***

Norvegian, Letonian, Lituanian, Alemanian hirutan, Frantzian, Amsterdamen…

***- Oporretan nora?***

Extremadura, Burgos, Haro, eta beharbada Parisera joango naiz.

***- Nola definituko zenuke zure burua?***

Uste dut nahiko pertsona ona eta alaia naizela. Norbaitek laguntza behar badu, bertan izango naiz.

***- Musika estilo bat?***

Heavy-a, musika lasaia… Passenger taldea adibidez.

***- Zein kolorek identifikatzen zaitu?***

Gorriak.

***- Nola ikusten duzu gazteon etorkizuna?***

Uste dut asko eta asko kanpora joango direla.

***- Erraz haserretzen zara?***

Ez, filosofiarekin hartzen dut bizitza.

***- Zer da herrian falta dena?***

Gazteentzako gauza gehiago. Adibidez poteorako adinik ez dutenentzako, gaztetxe bat.

***- Lagun bati zer eskatzen diozu?***

Laguntzea, behar duzunean bertan izatea…

***- Zer irakatsi dizu bizitzak?***

Indartsuak izan behar garela, eta gure bizimodua egiten ikasi behar dugula.

***- Akatsik baduzu?***

Pila bat, denok bezala. Akatsik handiena da oso alperra naizela eta sofan egotea nahiago dudala.

***- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?***

Munduak gazteontzako aukera gehiago dituela. Azken finean, nola izango dugu esperientzia, gustuko dugun horretan probatzeko aukerarik ez baldin badugu?

Leire Elustondo

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

## ESKAINTZA

Txakur hezitzailea eskaintzen da (oinarrizko obedientzia, talde heziketa eta portaera arazoak). ✆ 665714057 (Andoni).

## LOKALA

Zubiaurre 52an dagoen lokala lagatzen dut. Baditu aulkiak eta mahaiak, mikrouhin-labea eta hozkailua. Bilerak, jaiak eta bestelako ekitaldiak antolatzeko aproposa. 9:00etatik 15:00etara edota 15:00etatik 21:00etara erabil daiteke, eta ura eta elektrizitatea bakarrik ordaindu behar dira: 15 euro ordu-franja bakoitzean (20 euroko fidantza). Ordu solteak, 4 euro. ✆ 675481070.



Uztailaren 27an
Zorionak Iker zure 9. urtebetetzean familia guztiaren partez, batez ere zure lehengusina Ainerek. Muxu handi bat.



Abuztuaren 3an
Zorionak Aner zure 4. urtebetetzean. Musu potolo-potolo bat etxekoen partez.



Abuztuaren 23an
Zure lehen urtebetetzean, amama eta aititaren partez: Zorionak Urko!



Abuztuaren 26an
Zorionak Josu zure 6. urtebetetzean. Muxu asko etxeko guztien partez.



Abuztuaren 27an eta 25ean
Zorionak Aner eta Iraia !!! Ondo pasatu oporretan! Musu handi bat!!!



Uztailaren 27an
Zorionak Oiertxo!! Lau urte zezen egunean, paella eta gero Martxelekin ospatuko dugu lagun artean! Muxutxuak bihotza.



Uztailaren 27an
Zorionak Martxel!! Ondo pasa zure 5. urtebetetzean eta oraingoz, gozatu autotxokietan... Patxo handi bat.



Uztailaren 26an
9 urte!!! Zorionak Manex!!! Marmitako ederra prestatu eta ondo ibili Santixauetan!!!



Uztailaren 3an
Zorionak Libe familiaren partez!! Musu handi bat, neska jatorra!

**Hurrengo zenbakirako azken eguna:**
**IRAILAREN15a**

optika itze
✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Enter INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

TXALAPARTA TABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua)
ENKARGVAK 943 030 299

URRETA burdindenda
✖ Etxea ✖ Giltzak
✖ Tresneria ✖ Sarrailagintza
✖ Brikolajea ✖ Kit altzariak
✖ Errailak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

## MALLABIA 1964



Argazki hau Goita auzoko eskola aurrean aterata dago, 1964 inguruan. Bertan agertzen dira: Angel Gallastegi, Antonio Mugarza, Jose Urkidi, Antonio Urkidi, Alberto Mugarza, Juan Urkidi, Modesto Solozabal, Don Migel Uriarte, Santiago Landa, Eugenio Gandiaga "Entran", Julio Totorika eta Sebastian Gandiaga.

## ERMUA 1958



San Ferminetara joanda, paparrean ezinbesteko zapi gorria lotuta, laukote txapelduna: ezkerretik hasita beste hiruren lagun ezezagun bat, eta honen ondoan Jose Vicente Alberdi, Jesus Ciarsolo eta Luis Mari Izagirre. Txilibitua jo, mailuarekin matraka eman eta etxekoei eder egiteko kontuarekin-edo, gozoki kutxatxoarekin pozik Ermura, astelehenean beharra egin beharko zen-eta, erregular.

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA

**Oporrak gertu daude eta, aurten ere, ermuar asko herritik kanpo joango dira. Batzuek harro azalduko dute nondik datozen, eta herriak duen xarma; besteek, aldiz, alde txarrak nabarmenduko dituzte.**

**Eta zuk, opor-lekuan zaudenean, nola definitzen duzu Ermua? Eta ermuarrak?**



Herri girotsua da, gazte asko dagoelako. Seme-alabek diotenez, lehen giro handiagoa zegoen, orain asko Eibarrera doaz parrandan. Bestalde, hemen bizitzen daramatzadan 48 urteotan, herria zeharo aldatu da. Etxeak zatarrak dira, hori ezin da aldatu, baina orain parkeak daude, anbulatoriora igotzeko erraztasunak...

**Milagros Rey, 70 urte**



Ezagutu beharreko herria dela esango nuke: gune kulturala, Lobiano jauregia, kultur-ekitaldiak... Dena den, uste dut Ermuan berdegune gutxi dagoela, porlana da nagusi. Bestalde, lehen jende gehiago irteten zen asteburuetan, gauetan. Orain egunez dago giroa gehien bat, jendeak pintxo zaletasuna du.

**Rubén Lara, 37 urte**



Ez dela oso txikia esango nuke, oso jai dibertigarriak dituela eta jendea oso atsegina dela. Ermuan gazte asko dago eta, gainera, nahiko herri polita da.
Niri alde zaharra da gehien gustatzen zaidana, Erdikokale eta Valdespinako inguruak, hain zuzen ere.

**Paula Cruz, 15 urte**



Ermua lo-hiria da: beste herri batzuetara lanera joan eta bueltatzen den jendea eta listo! Bi kale! Halere, herri lasaia da eta denok elkar ezagutzen dugu. Valdespinako Markesa parkea eta Lobiano nabarmenduko nituzke. Parke gehiago behar dira, berdeguneak, baina gurean hori lortzea zaila da.

**Joaquín Díez, 58 urte**



## UDAKO ZINEA

***Abuztuak 4:***
*El llanero solitario.*

***Abuztuak 6:***
*3 bodas de más.*

***Abuztuak 11:***
*Frozen.*

***Abuztuak 13:***
*Jet Lag.*

***Abuztuak: 18:***
*Una aventura extraordinaria.*

***Abuztuak 20:***
*Ted.*



***Abuztuak 27:***
*Fast & Furious 6.*

***Abuztuak 29:***
*15 años y un día.*

*22:00etan, Orbe Kardinalaren plazan. Euria egiten badu, elizako aterpean.*

Patxi López

## Mallebiko Andra Mari jaixek 2014

**ABUZTUAK 12, martitzena**
19:00 EUSKAL HERRIKO NESKEN GOMAZKO PALETA zirkuituko finalaurrekuek Mallabia I Kirol Etxien:
-Arrizabalaga-Saez // Goikoetxea-Villanueva
-Pradera –Etxaniz // Araiztegi / Isasmendi

**ABUZTUAK 14, eguena UMEEN EGUNA**
11:30 Umeen txupinazue botako du Alkate txikiak.
12:00-14:00 /16:00-18:00 Umeentzako parke berezixe: puzgarriak, junping… parkien.
18:00 Bits festa parkien.
19:00 TXUPINAZUE Pedro Mari Areitioaurtena pilota epailean eskutik
19:30-21:00 Txokolatada (Izar Gorri Elkarteak antolatuta) eta INGO AL DEU erromeri taldie plazan.
21:00 PILOTA PARTIDUAK Mallabia I Kirol Etxien.
1) Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuituko finalak
2) Mendizabal III-Apezetxea (Lau t ´erdian)
3) Irujo-Tolosa / Ezkurdia-Zabaleta
Sarrerak abuztuaren 1etik 8ra salgai udaletxien
Partidu egunien takila 20:30tatik aurrera, 25 € -tan.
00:00 Erromerixie plazan INGO AL DEU taldeakin

**ABUZTUAK 15, barixekue ANDRA MARI egune**
11:00 Meza Jasokunde parrokixan.
Ondoren kalejirie plazatik frontoire, Mallabiko dantzarixekin.
12:15 Mallabiko dantzarixen emanaldixe frontoien.
17:30 Tute, mus eta briska txapelketa tabernetan.
17:30 Mallabiko XXIV. Harri-jasotze sarixe Harri Txikixe.
TOKIA: Mallabia I Kirol Etxie.
100 kg-ko zilindro zaharra eta 100 kg-ko bola.
Parte-hartzaileak: Inhar Urruzuno (Bizkaia), Izeta III (Gipuzkoa), Mikel Lopetegi Gipuzkoa), Aimar Galarraga (Gipuzkoa), Iñigo Eizagirre (Gipuzkoa), Xabat Olaizola (Gipuzkoa) eta Urrutia (Nafarroa).
Lehiaketan parte hartzeko izen ematea egun berberean amaituko da.
23:00 KORRONTZI taldean musika-dantza ikuskizuna parkien

**ABUZTUAK 16, zapatue SAN ROKE EGUNA**
**NAGUSI eta KOADRILEN EGUNA**
11:00 XV. PAELLA ETA III. MARMITAKO LEHIAKETArako izen emotie.
12:00 Meza Jasokunde parrokixan
13:00 MARMITAKOan eta 13:30 PAELLAn aurkezpena epaimahaiaren aurrien eta jarraixen sari banaketa.
Mallabiko Trikitilariak animatuko dabe girue.
Bazkarirako: Animatu eta ekarri etxetik plater, edalontzi eta kubiertuek.
Nahi izan ezkero ontzi berrerabilgarrixek egongo die DOHAINIK.
14:00 Jubilatuen bazkarixe frontoien trikitilarixek eta bertsolarixek girotute.
17:30 Koadrilen arteko jolasak.
20:00 Mallabitar guztientzat SAGARDOA eta TXERRI ERRIAN DASTAKETA.
20:30 Erromerixie plazan JOXPA taldiakin.

XXVI. IDI PROBA TXAPELKETA: ABUZTUAK 22,23,24 eta 25
Izena emotie: abuztuaren 3en (domekie) eguerdiko 12:00etan udaletxien

TXINDURRI ERMUA
TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK
ESKAINTZA BEREZIA OSTIRALERO
Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Ferreteria/Burdindegi ANBOTO
* Burdindegia
* Tresneria
* Sarrailagintza
* Giltzak / Aginte automatikoak
* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
* Opari artikuluak
Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# GREMIOEN GIDA

## DEKORAZIOA

OBREN KOORDINAZIOA • MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
ALTZARI I OSAGARRIAK...
dekorazio estudioa
trastévere
barruko dekorazioa
san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

## ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS
Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak
Komunetako altzariak
eta osagarriak
Gipuzkoa etorb., 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net

## PINTURAK

J.LUCAS
PINTURA EN GENERAL
630 22 51 36

## ELEKTRIZITATEA

βBETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13
943 17 65 25
689 23 31 71

## ERROTULAZIOA

ROTEK rótulos
- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
☎ eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

## ITURGINTZA

ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Valle
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

## ETXE-BIRGAITZEAK

SPARA
BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3° 48260 Ermua -Bizkaia-

## PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE
- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

## AROZTEGIA

iraner
Puertas EDER Carpintería
- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikuluak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 · iranercb@gmail.com

## ITURGINTZA

Igeltserotza - Iturgintza
Errekalde
Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com

**Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com**

**Santixau jai egunetan Euskal Birusak eta Antxitxiketan Euskal Begirale Taldeak TXIKURIXA zabalduko dute aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:**

- **Txandak eginez**
- **Patata-tortilak ekarriz...**
- **Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...**

Santixauetan EUSKARA MINGAINEAN

Euskal Birusa Elkartea

Antxitxiketan

**Lagundu nahi baduzu,**
**deitu 688632874 telefonora**

## SOR DEZAGUN ERMUAN JAI-GIRO EUSKALDUNA!!

# Euskal Biruseko kamisetak Txikurixan salgai!!




Helduentzat: 12€

Umeentzat: 10€